

70 ideia erraz

UMEEKIN ETXE BARRUAN JOLASTEKO

1. BIZKOTXO BAT EGITEA

Etxean dituzun osagaiekin, prestatu bizkotxo bat edo beste edozein errezea.

2. ITZALEN TEATROA

Moztu kartulinazko siluetak eta makil batean itsatsi. Atera linterna eta... magia!

3. ANTZERKITXOAK GRABATZEA

Idea bat pentsatu, pertsonaiak pentsatu eta grabatu ezazu eszena, iragarki edo sketch dibertigarri bat.

4. PUXIKA BATEKIN BOLEIBOL-ERA JOLASTEA

Puxika bat baduzu, puztu ezazu eta antolatu boleibol partida bat egongelan.

5. MAHAJOLASAK BERRESKURATU

Partxisa, monopolia, skatategoriez a... kendu hautsa hain gustuko zenituen jolasei eta gozatu.

6. KEINUAK EGITERA EDOTA PELIKULETARA JOLASTEA

Klasikoen artean klasikoena, beti funtzionatzen duena.

7. ATZAZKALAK MARGOZTEA

Eskuetakoak, hanketakoak... erabil izazu kolore ezberdinak edota margozteko modu ezberdinak, diberti zaitetz.

8. PERTSONAIA EZAGUN BAT ELKARRIZKETATZEA

Imajinatu pertsonaia ezagun bat elkarrizketatzen duzula eta egin galdera dibertigarriak.

9. ETXEAN ZEHAR MEZUAK EZKUTATZEA

Hartu post-it-ak eta ezkutatu mezuak etxetik. Aurkitzen duenari irribarre bat aterako diozu.

10. KUXINEKIN GERRAK

Tentsioak askatu eta barre egiteko modu eraginkorrena.

11. ZURE LOGELA BERRANTOLATZEA

Altxariak lekuz aldatu eta emaitza aire berri bat zure logelari.

12. KOREOGRAFIA BAT ASMATZEA

Aukera ezazu abesti bat eta asma ezazu koreografia martxoso bat.

13. ERRETRATOAK MARGOTZEA

Batek posatu eta besteek marraztu. Zein da dibertigarriena? Zeinek dauka antz gehien?

14. IRRATSAIO BAT GRABATZEA

Imajina ezazu irrati programa bat duzula. Zer kontatuko zenien zure entzuleei? Ze musika jarriko zenuke? Grabatu eta entzun.

15. PELIKULA BAT BIKOIZTEA

Edozein pelikuletako eszenak ahotsik gabe hartu eta jarri ahotsa. Elkarrizketa gero eta absurdoagoa izan, dibertigarriago.

16. MAHAI POLIT BAT PRESTATZEA

Gaur denbora duzunez, prestatu ezazu mahai polit bat, gcsarirako, meriendaarako, afarirako,...

17. ABESTI BAT ASMATZEA

Aska ezazu zure erritmoaren zentzia eta konposatu ezazu sentimenduz betetako abesti bat

18. YOGA EGITEA

Mugi ezazu mahaia eta bihur ezazu egongela yogako gela gisa.

19. MOZORRO DESFILEAK

Denak balio du. Zabaldu armairua eta jolastu konbinazio posible guztiekin.

20. "IZANGO BANINTZ..." ERA JOLASTEA

Animalia bazina, zein izango zinateke? Zergatik? Eta planeta bat, janari bat, arropa bat... bazina?

21. ZURE ZUHAITZ GENEALOGIKOA IDAZTEA

Atera paper bat eta arkatza eta erreproduzitu ezazu zure zuhaitz genealogikoa.

22. ARKATZEKIN ZIRKUITU BAT EGITEA

Atera zure arkatz eta errotulagailu guztiak etxeko pasilloan kotxeentzako zirkuitu bat montatzeko.

23. TXABOLA BAT EGITEA

Batu manta eta oihalak eta egin istorioak kontatu eta merienda jateko txabola on bat.

24. EGUNEROKOA IDAZTEA

Idatzi egunero egiten duzuna. Orain gauza gutxi dela irudituko zaizu, baina etorkizunean eskertuko duzu.

25. PAPEREZKO HEGAZKINAK

Egin paperezko hegazkinak eta jarri hegatu.

26. POEMA BAT ASMATZEA

Atera barruan duzun poeta eta idatzi poema bat. Ez du avola ez badu errimatzen.

27. PICHONARY-ra JOLASTEA

Arkatza eta papera bakarrik behar dituzu. Saia zaitetz besteek asma dezatela zer marrazten duzun; ezin duzu hitz egin.

28. SUPER HEROIAK MARTXAN

Bakoitzak hotere bat aukeratzen du eta jolasa hasten da.

29. ILEAPAINDEGI SESIOAK

Ez da ileapaindegi arrunt bat. Orrazkera zoroek bakarrik balio dute.

30. IPUINETAKO PERTSONAIAK

Ipuin bat kontatzea, bakoitzak pertsonaia bati ahotsa jarrita.

31. COLLAGE BAT EGITEA

Atera itzazu aldizkari zaharrak eta sortu ezazu pertsonaia dibertigarri bat edota ezinezko paisaia bat.

32. KOMIKI BAT IDAZTEA

Koadrodun paper bat hartu eta komiki tira bat sortu.

33. DILISTA BAT LANDATZEA

Hartu dilista edota txitxirio bat eta jarri pote baten kotoi bustian sartuta.

34. ESKUTITZ BAT IDAZTEA

Aukeratu zuretako berezia den pertsona bat eta idatzi iezazioz eskutitz bat.

35. ORIGAMIA EGITEA

Paperezko itsasontzi bat pajarita bat... aurkitu ideiak eta erabili irudimena.

36. BAKIGARRIAK EGITEA

Marraztu ezazu pertsonaia bat, moztu eta egin erropak, osagarriak,...

37. EGONGELAN PIKNIK BAT EGITEA

Prestatu mokacu bat, atera mantel bat eta montatu piknik bat egongelan.

38. TXOTXONGILOAK GALTZERDIEKIN

Aurkitu galtzendi zahar bat, josi botoiak begi bezala eta sortu zure txotxongiloak.

39. EZEZAGUNAK AFARIAN

Jolastu afalorduan zure familiarekin ezezagunak izango bazinete bezala. Zertaz hitz egingo zenukete? Diberti zaitetze.

40. KILIMEN GERRA

Taldeka, denok denon aurka, kilima gerra.

41. KARAOKE BAT EGITEA

Aukeratu zure mikrofonoa eta abestera.

42. ZINEA EGONGELAN

Prestatu sarrerak, palomitak... Zine forum bat ere montatu dezakezue.

43. EZKUTAKETA INGLESA

1, 2, 3... inor ez dadila mugitu.

44. ZUGANDIK GUSTATZEN ZAIKIDANA

Esan ahoz gora edota idatzi zure familiakoengandik gehien gustatzen zaizuna.

45. AHOKORAPILOAK

Zein da ezagutzen duzun aho-korapilo zailena? Esan dezakezu erratu gabe bizkorrago?

46. JARRERAK IMITATZEA

Txanda bakoitzean batek egiten du modelo lana eta egiten duen dena imitatu behar da. Gero eta postura arraroagoak, dibertigarriago.

47. ARMIARMA SAREA

Bihur ezazu pasabidea armiarma sare. Zinta, artile, erabili ditzakezu. Alde batetik bestera gurutzatu behar da, baina ukitu gabe.

48. GAUEKO AKANPADA

Gau ezberdin bat? Denok lotara etxeko egongelara, udako akanpaleku bat bezala.

49. "MARKAPAGINA" K EGITEA

Papera, kartulina, gometsak... erabilita.

50. PERTSONAIAK ALDATZEA

Partaide bakoitzak, beste bat aukeratu behar du eta bera izango balitz bezala jokatu. Ezinezkoa barrerik ez egitea.

51. ELKARBANATUTAKO ISTORIOA

Bat hasten da, eta narratzailearen papera pasatuz doa.

52. OINAREKIN MARRAZKIAK EGITEA

Gai al zara oinekin zure izena idatzi edota aurpegi bat marrazteko? Agian harrituko zara edota barre algaraz lehertuko zara; ea zer ateratzen den.

53. TXISTEAK KONTATZEA

Ziur mila aldiz kontatu duzula. Baina nori ez zaio gustatzen txiste bat?

54. MASAIK EMATEA

Maukak jaso eta eman ezazu masaia dakizun ondoen. Gero, jasotzea dagokizu.

55. EZINEZKO AURPEGIAK

Batek ahalik eta keinu arraroenak egin behar ditu eta gainontzekoak ezingo du barrerik egin. Lortu ahaliko duzue?

56. KATAPULTA BAT EGITEA

Hartu goilara eta egin zure katapulta paperezko pilotekin. Nor heltzen da urrutien?

57. ASMATU ABESTIA

Hitzek ez dute balio. Tarareatu edo aukeratu silaba bakarra. Zein abesti da?

58. ARGAZKI DIBERTIGARRIAK

Atera mugikorra eta egin argazki dibertigarriak: salto egiten, keinuak egiten, ... zein dibertigarria den gero ikustea.

59. EKILIBRISTA

Zinta baten gainetik mugi zaitetz ekilibrista bat bezala.

60. DOMINO EFEKTUA

Atera pieza edo liburu batzuk eta jarri ilaran. Begira zeinen bizkor erortzen diren. Gero eta gehiago hobeto.

61. ALT XORRAREN MAPA

Ezkutatu objektu bat eta marraztutako zure etxeko plano baten kokatu. Aurkitzeko gai zara?

62. MARRAZKIA ELKARLANEAN

Egin edozein zirriborro paper baten. Hurrengoak, zentsua duen marrazki bat egiteko erabili beharko du.

63. PAPEREZKO "KOMEKOKO" AK

80ko hamarkadara buelatu gara. Montatu ezazu paperezko "komekoko" bat eta ikusi zer dagoen solapen azpian.

64. UMETAKO ABESTIAK

Gogoratu zure umeekin xikitako kantak.

65. KANASTA

Otzara bat, kubo bat... erabili ditzakezu.

66. HOTZ ETA BERO

Ezkutatu objektu bat eta aurkitu espazioan mugitzen. Hurbil dagoenean, bero da eta urrutit dagoenean, hotz. Ezkutatu ahalik eta ondoen zailagoa izateko.

67. TELEFONO APURTUA

Pentsatu esaldi arraro bat. Pasatu zure eskumakoari oso azkar esanda. Zer heltzen zaio izkenengoari?

68. ALT XORRAREN BILA

Pista batek betera garamatza. Altxorra aurkitzeko gai izango al zarete?

69. ZENTZUGABEKERIAK

Batek gauza bat esaten du. Hurrengoak zerikusirik ez daukan beste zerbaitekin erantzuten dio. Eia nor aguantatzen duen denborarik gehien barrerik egin gabe.

70. PERTSONAIAK ASMATZEA

Batek pertsonaia bat pentsatzen du. Besteek galderak egiten dizkiote nor den asmazeko. Erantzunak bai ala ez soilik izango dira.

